

Karobi guneak izen berria du: Ixabel Olano Segurola plaza

Nuevo nombre para la zona Karobi en homenaje a la primera andereño de la Ikastola



AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAKITZEN

- 2 ▶ Gogoz eta ilusioz
- ▶ Baratze parke berria estreinatu dute erabiltzaileek
- ▶ Nekane Zaldua nueva concejala de igualdad
- ▶ Nueva plaza Ixabel Olano Segurola
- ▶ Azaroak 25
- ▶ Oñati y Pasaia toman como ejemplo la nueva organización municipal de Beasain

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 ▶ Aurtzakaren dantza emanaldia
- ▶ Bisita gidatu antzettua, Ondarearen Europako Jardunaldien baitan
- ▶ XXVI. errezil sagar eta XXVIII. fruitu eta barazki lehiaketa
- ▶ Igartza Musika: Elena Setien + Grande Days
- ▶ Omenaldia Pakita Goitiari
- ▶ Kale antzerkia, Sahkti Olaizola
- ▶ Boluntarioen eguneko tortilla lehiaketa
- ▶ Gurpil festa
- ▶ Beasaingo Paperak 25. alearen aurkezpena

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 ▶ GARABIDE
- Apoyo a las lenguas minorizadas

BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA

GUTUNA



Nekane Zaldua

Berdintasun zinegotzia

GOGOZ ETA ILUSIOZ

Hilabete eskas daramat udaletxean Berdintasun Sailaren gidaritzan. Ilusio handiz heldu diot erronka berri honi, baita erantzukizunez ere. Asko dut ikasteko oraindik, baina lantalde bikaina dut alboan beti laguntzeko prest.

Etorkizunaren eraikuntzan genero berdintasunak ukaezinezko printzipioa izan behar du eta hori lortzeko, oraindik, bide luzea dago egiteko. Aurreko zinegotziak ekindako bideari eta egindako lan bikainari jarraipena ematea da nire nahia eta gogor egingo dut lan balioetan oinarritutako Beasain parekideagoa eraikitzen.

Genero berdintasuna, parekidetasuna eta kontziliazioa arlo guzietan lantzeko eta txertatzeko, ELKARLANA ezinbestekoa da herriko elkartea eta eragileekin zein gainerako erakundeekin. Horregatik, dagoeneko hasia naiz emakume taldeekin biltzen, udal teknikariarekin gai eta proiektu ezberdinak begiratzen eta Foru Aldundiko Berdintasun zuzendari orokorraren eskutik, Gipuzkoa mailan berdintasuna sustatzeko lerro nagusiak zein diren ere ezagutu ditut.

Esan bezala, lan asko dago egiteko, baina nire esfortzu eta konpromiso guztiarekin lan egingo dudala hitz ematen dizuet gizarte eta herri berdinaleago baten alde.

Por una sociedad y un municipio más igualitario

Llevo escasamente un mes al frente del Departamento de Igualdad. Un mes en el que me he reunido con grupos de mujeres, técnicos y miembros de la Diputación Foral porque creo que la igualdad de género debe afrontarse y trabajarse desde la COLABORACIÓN y de manera conjunta.

Queda aún un largo camino por recorrer, pero la igualdad de género debe ser el principio fundamental para construir nuestro futuro y nuestra sociedad, a fin de que logremos una sociedad más igualitaria e inclusiva en todos los ámbitos. Ese será mi principal objetivo y para lograrlo trabajaré duro cada día junto a la ciudadanía y grupos de mujeres del municipio. Daré continuidad al trabajo y al camino emprendido por mi anterior compañera y me comprometo a trabajar siempre a favor de una sociedad y un municipio más igualitario.

BARATZE PARKE BERRIA ESTREINATU DUTE ERABILTZAILEEK



Urriaren 21ean zabaldu zituen ateaak Beasaingo baratze publikoen parke berriak. Inaugurazio ekitaldian bertako erabiltzaileek, Beasaingo udal ordezkariek eta Kutxa Ekogunea eta Caritas-Sareako kideek parte hartu zuten. Sareak eskainitako "Baratzezaintza ekologikoaren oinarriak" ikastaroa jasotzeaz gain, Jakoba Errekondoren eta Antton Olariagaren Landareak lantzen urteko gidaliburu berria ere banatu zitzaien baratzekideei.

Baratze parke berriak 30m²ko 57 baratze ditu. Aurreko proiektuarekin alderatuta, lur zati gutxiago diru, baina 214.651€ aurreztu dira proiektu berriarekin eta baratze zaintzan aritzeko aproposagoa den lurzoru hiritarrean kokatu da. Helburu soziala lehenetsi denez, 57 baratzeetatik 16 Sarea fundazioarentzat eta 4 ikastetxeentzat gorde dira eta gainerako 37 baratzeak herritarren artean zozkatu dira.

Erabiltzaileek erremintenzako biltegi eta aldagela gisa erabil dezaketen etxola dute bertan eta aurrerantzean, etengabeko aholkularitza jasoko dute Kutxa Ekoguneak eskainitako hileroko Furgobaratza zerbitzuaren eskutik.

El recién inaugurado parque de huertas sociales de Beasain cuenta con 57 parcelas; 20 serán gestionadas por la fundación Sarea y los centros educativos del municipio y los 37 restantes han sido sorteados entre la ciudadanía. Ello se debe a que a la hora de diseñar el nuevo proyecto el Ayuntamiento ha dado prioridad a las personas más desfavorecidas y a los colectivos de interés especial. Además, gracias al nuevo proyecto, el parque de huertas se ha creado en un terreno más idóneo para la horticultura y el Ayuntamiento ha ahorrado 214.651€



NEKANE ZALDUA NUEVA CONCEJALA DE IGUALDAD

En el pleno de septiembre Nekane Zaldúa asumió el cargo de concejala y tras la toma de posesión de su acta ya ha comenzado a trabajar como responsable del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento.

En este tiempo se ha reunido en varias ocasiones con la reelegida comisión directiva de la asociación de mujeres Asmube, presidida una vez más por Mari Paz Sanchez tras haber vuelto a lograr el apoyo de la mayoría de las integrantes en la reciente asamblea general de la asociación. Asimismo, junto a la técnico de igualdad está dando continuidad a los proyectos actuales que tiene en curso el departamento y está colaborando con la Diputación Foral de Gipuzkoa en la elaboración de nuevos proyectos que se podrán poner en marcha en Beasain en los próximos meses.



Nekane Zaldúa izango da Berdintasun Saileko arduraduna aurrerantzean iraileko osoko bilkuran zinegotzi kargua hartu ostean. Dagoeneko bildu da berriki batzar orokorrean berretzia izan den Asmubeko emakume elkarteko zuzendaritzat batzordearekin. Era berean, teknikariarekin saileko proiektu ezberdinak lantzen eta Aldundiarekin elkarlanean Beasainen martxan jar daitezken proiektu ezberdinak azterzen ari da.

NUEVA PLAZA IXABEL OLANO SEGUROLA



El 7 de enero de 1965 y a propuesta de un grupo de padres y madres, Ixabel Olano Segurola comenzó a impartir clases a 23 niños y niñas en lo que fue la primera aula de la Ikastola. Fue la primera y única andereño en aquellos difíciles años en los que impartir enseñanza en euskara no era una tarea fácil.

En reconocimiento a su trayectoria en favor del euskara, como andereño, educadora y mujer ejemplar, el pasado 29 de octubre se inauguró la placa que da su nombre al parque ubicado entre las calles Karobi, Florencio Axpe y Errekarte. Ixabel Olano Segurola nos dejó el pasado enero a los 91 años de edad.

AZAROAK 25

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, ekintza ezberdinak antolatu ditu Besaingo Udaleko Berdintasun Sailak herriko hainbat eragilerekin batera.

Besteak beste, emanaldi zikloa egingo da azaroaren 9, 23 eta 27an. Emanaldi guztiak doakoak izango dira eta batzar aretoan eskainiko dira.

24an eta 25ean Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren inguruko ekitaldiak egingo dira Zubimuzu plazan. Eta azaroan zehar Beasaingo Institutoan “Autodefensa Feminista eta Maskulinitateak” tailerrak egingo dira.



OÑATI Y PASAIA TOMAN COMO EJEMPLO LA NUEVA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL DE BEASAIN

Representantes del Ayuntamiento de Oñati y del Ayuntamiento de Pasaia se han reunido con el alcalde, Aitor Aldasoro, para conocer de primera mano la nueva estructura organizativa implantada en el Ayuntamiento de Beasain



URRIAN BEASAINEN



Aurtzaka taldearen dantza emanaldia



Bisita gidatu antzektua, Ondarearen Europako Jardunaldien baitan.



Boluntarioen eguneko tortilla lehiaketa. ASMUBE izan zen elkartea omendua



Igartza Musika: Elena Setien + Grande Days



Omenaldia Pakita Goitiari asteroko azokan



Kale antzerkia, Sahkti Olaizola



Gurpil festa



XXVI. errezil sagar eta XXVIII. fruitu eta barazki lehiaketa



Beasaingo Paperak 25. alearen aurkezpena



APOYO A LAS LENGUAS MINORIZADAS



El Ayuntamiento de Beasain destina el 1% de su presupuesto a ayudar a países en vías de desarrollo. Gracias al convenio de colaboración suscrito con Garabide, a partir de ahora, una cuarta parte de ese presupuesto irá destinado a la promoción de las lenguas minorizadas.

Durante los próximos 5 años el Ayuntamiento colaborará con Garabide en el proyecto para revitalizar las lenguas minorizadas con el objeto de que las comunidades con lenguas en peligro de desaparecer puedan preservar su lengua e identidad.

El proyecto de Garabide, que parte de la experiencia del euskera y se basa en la cooperación lingüística, tiene como objetivo compartir esa experiencia de recuperación del euskera con comunidades lingüísticas minorizadas de pueblos indígenas.

A ese respecto, y dentro del proyecto de revitalización de las lenguas, una docena de líderes indígenas de México, Colombia o Perú visitaron Beasain durante varios días. En México, por ejemplo, se hablan más de 140 lenguas, en Colombia alrededor de 70 y en Perú unas 60.

Muchas de ellas están en grave peligro de desaparecer porque son lenguas sin estandarizar, sin reconocimiento oficial, sin prestigio social y sin presencia en el sistema educativo. Por ello, y para que los líderes indígenas pudieran conocer de primera mano el modo en que se está revitalizando e impulsando el euskera, recibieron varios cursos intensivos en el Euskaltegi municipal.

Tras la visita realizada a Beasain y a otros lugares de Euskal Herria, los líderes indígenas volverán a sus comunidades cargados de ideas y proyectos para seguir trabajando en la revitalización de sus lenguas.

GARABIDE ELKARTEA

Beasaingo Udalak bost urterako lankidetza hitzarmena sinatuko du datorren urtean Garabide elkartarekin herri indigenetako hizkuntzen biziberritzea sustatzeko. Hitzarmen honen helburua da garapen bidean dauden herrialdeei eskaintako laguntzaren baruan kooperazio linguistiko sustatzea herrialdeen nortasunaren alde eginez. Horretarako, Udalak, garapen bidean dauden herrialdeei bideratzen dien aurrekontuaren %1etik laurden bat zuzenduko du Garabide elkartarekin sinatuko duen hitzarmenera

ELKARRIZKETA JON SARASUARI

2005. urtetik darama Garabidek hegoaldeko hizkuntza komunitate gutxituetako eragileekin lankidetzan, nola gauzatzen duzue esperientzien elkartrukea eta zertan oinarritzen da aipatu lankidetza?

Garabidek jakintza eta esperientziaren arteko fluxuan oinarritzen du lankidetza, hau da, ikasi eta irakatsi terminoen inguruan ardatzen dugu kooperazioa, ez hainbeste proiektuak finantzatzean.

Herri bezala, azken 50 urtetan egin dugun prozesu nagusienetarikoa euskararen biziberritze prozesua izan da eta horixe partekatzen dugu tankerako bideak egin nahi dituzten herriekin. Egun, gainera, eskaria handia da munduan zehar desagertzeko zorian dauden hizkuntza pila daudelako eta ez dakite horiek nola biziberritu. Beraz, kooperazio estilo honek behar horri erantzuten dio, munduko problematika horri, hizkuntzen eta kulturen problematika horri eta modu zabalago batean baita herrien garapen problematikari ere.

“Garabide propone un modelo de cooperación basado en el intercambio de experiencias, en aprender y enseñar, y no en financiar proyectos. Nuestro objetivo es compartir y mostrar nuestra experiencia con el euskera a las comunidades en vías de desarrollo que quieren revitalizar sus lenguas y no saben cómo hacerlo”

Garrantzitsua al da proiektuak currera eramateko erakundeen eta instituzioen, Beasaingo Udalak, babes eta lagunza izatea?

Jakina. Guk udal eta instituzio ezberdinei gogoeta politiko bat planteatu diegu: zein izan behar duen 3. mundurako garapen politikak. Baliabideak beti dira



Buruak eta bihotzak beteta agurtu ziren bisitariak

Garabideko Lehendakarioordea

mugatuak, horregatik lankidetza ondoen egin dezakegun arloetara bideratzea da gure apustua eta Euskal Herriak zerbaite baldin badauka munduarekin partekatzeko euskararen eta kulturaren berreskurapena da. Zentzu horretan, Beasaingo Udalak oso jarrera irekia izan du eta apustu berritzalea egin du kooperazio politika egiterakoan. Guretzako udal batek horrelako apustua egitea oso garrantzitsua da.

“Cada año ofrecemos un programa de formación a los líderes indígenas que nos visitan. Este año, gracias al convenio suscrito con el Ayuntamiento, han recibido formación sobre la alfabetización de personas adultas en el Euskaltegi y sobre el trabajo de un técnico de euskara y la política lingüística de un Ayuntamiento como el de Beasain. Ha sido una experiencia muy enriquecedora y novedosa”

Hitzarmenaren baitan bi ikastaro trinko eskaini dizkie Euskaltegiak bisitan eterri diren atzerriko ordezkariei. Zer ikasteko aukera izan dute? Nolako esperientzia izan da haientzat?

Urtero formazio programak eskaintzen dizkiegu herrialde ezberdinatik datozen koordinatzaile edota hizkuntza bultzatzailee Euskal Herrian euskara ikasteko zein estrategia erabili diren ikus eta ikas dezaten.

Marko horretan, Beasaingo Udalarekin sinatuko dugun hitzarmenari esker, Beasaingo Udal Euskaltegian helduak euskalduntzeko prozesua zein izan den eta zein den azaldu zitzaien eta egin, gramatika ikastetik haratago, hizkuntzak ikasteko modu eraginkorragoak eta dinamikoak daudela ikusi ahal izan zuten. Bestalde, udal barruko hizkuntza politika nola

bideratzen eta antolatzen den eta euskara teknikari batek Udalean zein lan egiten duen ere ezagutzeko aukera izan zuten.

Ordezkarentzat oso harriarri eta berritzalea izan zen jasotako formazioa eta oso gustura aritu ziren.

“La apuesta realizada por el Ayuntamiento a favor de una nueva política de cooperación es muy importante para nosotros y también lo es sensibilizar a la población sobre la problemática que hay a nivel mundial con las lenguas minoritarias; porque el nuestro no es un problema aislado, muchas comunidades están haciendo un gran esfuerzo por revitalizar y preservar sus lenguas. Y por nuestra trayectoria tenemos mucho que enseñar, pero también mucho que aprender porque en cierto modo hemos perdido ese espíritu que ellos aún conservan”

Amaitzeko, Garabideren beste helburuetako bat ere bada euskal gizartea sensibilizatzea eta helburu horrekin hitzaldia ere eskaini zenuten Igartza Jauregian.

Sentsibilizazioa osotasun bat da, eta azkenean, gure problema ez da gurea bakarrik, gu mundu mailako korapilo batean gaude. Horregatik, Beasaingo gizartea herri indigenen hizkuntza problematikarekin eta egiten ari diren ahaleginarekin bustitzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Guk badugu, gure ibilbideagatik, haiei zer erakutsia, baina guk ere badugu haiengandik zer ikasia, neurri batean guk galdu dugun espíritu hori daukatelako, aurrera egiteko, hizkuntzaren ametsa sortzeko, kulturari eusteko eta ohiturei eusteko grina bizirik dutelako.



**Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako
Nazioarteko Egunaren inguruko ekitaldiak**
Actos por el Día Internacional de la
Eliminación de la violencia contra las mujeres

— **Emanaldien zikloa Ciclo de proyecciones —**
(Udaletxeko Batzar Aretoan)

AZAROAK 9 NOVIEMBRE 18:30

“Volar” Asmube

AZAROAK 23 NOVIEMBRE 18:30

“Él nunca me pégó” Oriako Lamiak

AZAROAK 27 NOVIEMBRE 17:00

“Emakume Palestinarren begietatik” Berdintasun Foroa
—— **Ekitaldiak Actos —**

AZAROAK 24 NOVIEMBRE

16:30 Herri ekimena “Indarkeria sexistaren aurkako
hari matazak” “Madejas contra la violencia”
Loinazko San Martín plazan (Kioskoan)

17:30 Herriko ikasleak Estudiantes Zubimuzu plazan

21:00 PERFORMANCE Oriako Lamiak eta
Berdintasun Foroa - Bide luze plazan

AZAROAK 25 NOVIEMBRE

18:30 Elkarretaratzea Concentración Asmube

DATUEKIN JOLASEAN

Udalak Ezkiaga auzoan bi igogailu publiko
eraiki ditu auren auzoko irisgarritasuna
hobetzeko. Igogailuek zein erabilera izan
duten jakin nahi al duzu?

El Ayuntamiento instaló dos ascensores
públicos en el barrio Ezkiaga con el objeto de
mejorar la accesibilidad de la ciudadanía.
¿Quieres saber cuántos viajes han realizado
ambos ascensores en este tiempo?

KALEKO IGOGAILUAK ASCENSORES

ERAUSKIN, 5

DATA FECHA	BIDAIA KOPURUA Nº DE VIAJES	HILEKO BIDAIAK VIAJES AL MES
2017.07.03	784.503	
2017.08.04	790.300	5.797
2017.09.14	795.200	4.900

ORIAKO PASEALEKUA

DATA FECHA	BIDAIA KOPURUA Nº DE VIAJES	HILEKO BIDAIAK VIAJES AL MES
2017.07.03	29.315	
2017.09.11	48.522	19.207

JOSE MIGEL ITURRIOTZ

DATA FECHA	BIDAIA KOPURUA Nº DE VIAJES	HILEKO BIDAIAK VIAJES AL MES
2017.07.03	33.649	
2017.09.13	58.950	25.301

JAKINARAZPENAK NOTIFICACIONES

EGUTEGI FISKALA CALENDARIO FISCAL

ZERGAK ETA TASAK IMPUESTOS Y TASAS	Kobrantza epea Periodo de cobro
Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga (J.E.Z.) Impuesto sobre Actividades Económicas (I.A.E.)	2017.10.01 2017.11.10
Kioskoak herri bidean Quioscos en la vía pública	2017.10.01 2017.12.01

LOTURAK ENLACES



• **Udal Euskaltegia**

www.beasain.eus/euskaltegia



• **Musika Eskola**

www.beasaingomusikaeskola.eus



• **Beasaingo Udala**

www.beasain.eus



• **Antzizar kiroldegia**

www.antzizar.net



• **kzGunea**

www.kzgunea.eus



Beasaingo Udala



**IGARTZA MUSIKA BEKA
ENTZUNALDIAK
AUDICIONES**

AZAROAK 18 eta 19

Lege gordailua SS 403-2016